

HERRI MUSIKA HAURRENTZAT

Aurreko buletinean iragarri genuen bezala, HM udaberriko kontzertuarekin batera "Herri Musika Haurrentzat" kontzertu ziklo berria martxan jarri zen.



Herri musika haurren artean ezagutaraztea, sustatzea eta zabaltzea izan da gure sorreratik izan dugun helburu garrantzitsuenetakoa bat eta haurrei zuzendutako eskaintza berri honekin hori izan da lortu nahi genuena.

Beren helburua ondo bete ahal izateko kontzertu hauen osagarriek hiru alderdi ezberdin bete beharko lituzkete; erakargarriak, didaktikoak eta entretenigarriak izatea.

Juan Mari Beltranek eta Fernando Jalonek elkarrekin eskaini zuten ziklo berri honetako lehen kontzertua eta euskal herri musikan erabili izan diren Xirolarrua izeneko zahagidun gaiten hots, musika eta funtzionamenduaren aurkezpena egitea izan zen emanaldiaren gaia.

Xirolarruaren hots eta musikari buruzko estreinako emanaldi honetan ondo bete ziren aurreikuspen eta helburu guztiak:

- Oartzungo haurren aisialdiko elkartearen laguntzarekin haur kopuru

garrantzitsua etorri zen kontzertura eta hauek ez ziren bakarrik etorri. Gure ustez aberasgarriagoa izan daitekeen kontzertu familiarra formatuaren proposamenari erantzunez haur mordoska bat beren gurasoekin hurbildu zen eta beraiekin partekatu zuten kontzertua. Horrela eginez, haurrek entzundakoari jarraipena emateko aukera izan dezakete.

- Mota horretako hots-jostailuak, dultzaina eta alboka bezalako soinutresnak erabiliz, haurrek ezagutu zituzten zahagidun gaita hauen ezaugarri nagusiak. Zahagi gabe tutu bakoitza bere aldetik joaz, bi joleen artean biak batera joaz eta zahagiarekin bi tutuak batera joaz ulertu zuten xirolarruen funtzionamendua.

- Haurren aurrean soinu-tresnaren zati bakoitzaren afinazioa landu zen, bi zatien artekoa ere bai eta horrekin batera harmoniaren bitartez lortzen den polifoniaren edertasuna.

- Berrogei bat minutu iraun zuen saioan zehar etorritako haurrek arreta

handiz jarraitu zituzten musikarien adierazpenak. Galdera asko egin zituzten eta gogotsu lagundu zituzten beren txaloekin musikarien joaldiak.

Beraz, emanaldi erakargarria, didaktikoa eta entretenigarria izan zela zalantzarik ez dugu, eta horren frogak bistan geratu ziren: Etorritakoak berriro etortzeko gogoarekin joan ziren.

Musikariaren adierazpen eta joaldien bitartez haurrek, eta gurasoek, soinutresna hauen historia, joerak, funtzionamendua eta musika ezagutu zituzten. Ikasteaz gain, haurrek ongi pasatu zuten soinu-tresna hauek deskubrituz eta herri musikaz disfrutatuz.

Lehen kontzertu honetan jaso dugun erantzun onak herri musika haurren artean zabaltzen hasitako bide honetatik jarraitzea animatzen gaitu. Eskertzekoa da gure proposamen berri honen aurrean gurasoek eta haurren ekintzak Oartzunen antolatzen dituztenek eskainitako laguntza.

KONTZERTUAK HM TXOKOAN

Udako kontzertua

2012ko ekainaren 30ean - 18:30tan

TRASIEGO

Behe Andaluziako herri musika



**SARRERA
5 EURO**



Hirukote honen izatea hobekien definitzen duena Behe Andaluziako folkloreaken didaktika da. Flamenkoaren izaera nabarmenak musika mota honi egin dion itzalak beste garai eta bizi-ziklo batzuetara baztertu du.

Bere sorreratik, hirukote honek Espainiako hainbat musika herrikoiekin antzekotasunak dituen erreperitorio aberats hau beste itxura batekin hurbiltzeko bokazioa izan du

Oraindik bizirik dirauen Andaluziako hegoaldeko musika katalogoaren barruan musikak betetzen dituen funtzioen araberrako emanaldia eskaintzen du hirukoteak. Hala, urteko eta bizitzako garai ezberdinetan zehar ibilbidea osatzen du herri doinu ugari eta erromantze-bilduma fina duen erreperitorio aberatsa iraun duen bezala erakutsiz.

Azken bosturtekoek zanbonba herrikoia berrindartzen ikusi dute, Xerez inguruko herri ezberdinak lotzen dituen Eguberrietako bilera, komunikabideen sekulako eraginak

eta flamenkoaren egokitzeek bultzatuta, testuak bertsiotzeko bakarrean fosilizatuz eta erritmo eta harmoniak trukatuz, estandarizazioa jasaten ari den garai eta leku guztietako erreperitorioa babestu duena.

Trasiego hirukoteak bere bidaia ongi pasatetik abiatzen du, festak zentzurik izango badu nahitaezko oinarria, baina aldi berean hau eusteko behar den aniztasunaren inguruko kontzientzia sortu nahi du, berezitasun identitarioak "bizirautea" ahalbidetu duten adierazpide ezberdinak biltzea baita herri kulturaren ezaugarrien artean nabarmenenetakoa.

Gure herri kultura pixkanaka identitate ezaugarri ugari horiek galtzen joan da gaizki ulertutako modernitateak oraina iraganarekin lotzen jakin ez duelako.

Harroa izateko inongo asmorik gabe, talde honek bere eskaintza beste edozer gauzaren gainetik ludikoa, baina, batez ere, didaktikoa, dela azpimarratu nahi du. Bertan, musika ira-

ganeko, gaur egungo eta, zergatik ez, betiko istorioak kontatzeko aitzakia bihurtzen dute.

Ahozko tradizioaren inguruan egin diren era ezberdinetako bilketa lanetan azaldutakoak dira kantatuko duten egitarauan entzungo diren testu eta doinuak. Nolazpait esateko, emanaldiaren helburua ganbaran, beraien aitona-amon zaharren memorian, poliki-poliki ahitzen ari den genero baten bizirik irautea azaltzea da.

HAURRENTZAT KONTZERTU DIDAKTIKOA

Altzibarko festak direla eta, Soinueneak antolatzen dituen Herri Musika Haurrentzat zikloko udako kontzertua *ekainak 30ean eguerdiko 12:00etan Altzibarko plazan* izango da.

Herri Musikaren Udako kontzertura etorriko den andaluziar taldea aprobetxatuz, kontzertu familiar honetan Trasiego hirukoteak Andaluziako herri musika eta soinu-tresnen misterio eta magiaren alderdi ezberdinak aurkeztuko dituzte.

JOSEBA TAPIA

Eta tira eta tunba



Joseba Tapiak bostgarren diskoa du *Eta tira eta tunba* izenarekin kalera-tu duena. Karlista garaiko kantu hau ia gureganaino iritsi da belarriz belarri, amonaz amona eta orain bilduma batean entzungo dugu bigarren karlistada garaian idatzi ziren beste hainbat kanturekin batera.

Liberalen eta Karlisten artean izan zen talka honek izugarritzko ipurdikoa eragin zuen euskaldunen artean. Alde batean zein bestean idatzi zituzten euskaraz bertsoak eta beraz bi aldeetan zeuden euskaldunak. Kantu eta bertso hauek gerra psikologikoa modu oso eraginkorrean egiteko balio zuten, baita giroa berotzeko ere.

Hildako zerrenda luzea utzi zuen bigarren karlistadak eta askok diote gure azken gerrate zibila izan zela.

Hondamendi honen erdian ordea kantua gelditu zaigu herentzian. Edertasun handia dago bertan. Tartean badira barrea eragiten duten letrak dituzten kantuak, beste batzuk iraingarriak dira aurkariarentzat. Umore zorrotzekoak eta sentimendu sakoneko letrak dira liburuetaiko isiltasunetik atera eta Joseba Tapiak doinutu dituenak. Honekin Euskal Herriko historia modu ludikoan gogoratzeke aukera dugu.

Kontzertu honen oinarria den diskoa hogeita bi kanturekin osatu du.

Horietako gehienak Antonio Zavalaren liburuetaatik hautatuak izan dira. Besteak berriz Balezenaren *karlistaden kantutegia* liburutik.

Kantu gehienak doinurik gabe zeudenez doinu berriekin jantzita berreskuratu ditu. Beste batzuk beren doinu originaletan, hala nola, *Azpeitiko neskatxak*, *Eta tira eta tunba*, *Ta gu gera edota Hernani dago penoso*. Gainera, musika jartzeko orduan, gerra giroa kontuan hartuaz hots militarra gehitu nahi izan du: metala. Hala, esku-soinuak eutsitako doinuaren ondoan entzuten dira tronboi, bonbardino, tronpeta eta, metala ez bada ere, kainoa dirudien bonboa.

Udako kontzertua SOINUENEA - Herri Musikaren Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Afaria Auzokalte Elkartearen izango da, kontzerturako erabiliko den areto berdinean. Bertan musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko aukera izango da. Izena emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua mugatua baita.

Prezioa (kontzertua barne): 20 euro.



kontzertu honen laguntzaileak:



HERRI MUSIKAREN 11. JARDUNALDIAK

Aurten jardunaldiei *Herri Musika Bildumak* izenburua jarri zaie. Izenburuak esaten duen bezala herri musikari lotutako bildumen nondik-norakoak aztertuko dira Soinueneak Irungo *Ikusteko musika-Música para ver* eta Iruñako *Ortzadar* taldearen laguntzarekin antolatutako jardunaldietan. Egitarauaren aurrerapenean ikus daitekeenez, azaroaren 12 eta 18aren artean izango dira antolatutako ekitaldiak.

EGITARAUA

Azaroak 12, astelehena. 17:30. "IKUSTEKO MUSIKA. Munduko musika-tresnak" erakusketaren inaugurazioa.

Azaroak 16, ostirala. 19:30. HM Txokoa Oartzunen DVDaren proiektzioa.

OIARTZUNGO HERRI MUSIKA ESKOLAN IKASTEKO AUKERA

Ikasturtea bukatu da eta hurrengoan parte hartzeko matrikulatzeko epea irikita da uztailearen 15era arte. Oartzungo Herri Musika Eskolan aurten heldu den ikasturtean txalaparta, alboka, dultzaina, txistu-danbolina, herri perkusioa, xiolarrua eta lengoia musikala ikasteko aukera izango da. Hori ahalbidetuko duten irakasleak Ixiar Jauregi, Haritz Ezeiza, Jon Ansorena, Lara Mitxelena, Juan Mari Beltran eta Fernando Jalon izango dira. Horrela, Aitor Beltran ordezkaturiko du Lara Mitxelena txalaparta eta lengoia musikala erakusten, gainera txaranga zuzenduko du, eta Juan Mari Beltranek eta Fernando Jalonek xiolarrua jotzen erakutsiko diote interesatuta dagoen ikasleari.

Ikus daitekeenez aurten ere badira eskaintza berriak. Lehendik erakusten ziren soinu-tresnen zerrendari xiolarrua gehitu zaio eta taldeen eskaintzari, alboka eta dultzaina taldea, txaranga gehitu zaio. Ikasteko gogoia duenak Soinuenearekin harremanetan jartzea besterik ez du.



Txalaparta Festan parte hartu zutenak bilduta. HMT

26. TXALAPARTA FESTA HERNANIN

Maiatzaren 20an txalapartari historikoen etxeetan barrena antolatutako ibilaldia eguraldi txarrarengatik ez zen osoa egin baina Saustan izan genuen harrera aparta ez dugu ahaztuko. Bukatzeko Erbetegi Etxeberri bisitatu genuen.

Azaroak 17, larunbata. MINTEGIA

- 11:00: Ikusteko Musika. José Luis Loidi & Lourdes Yarza.
- 12:30: Xixongo Museoko bilduma. Alfonso Fernández García
- 13:15: Ortzadar Taldeko Herri Musika Bildumak. Ortzadar
- 14:30: Bazkaria
- 16:00: Ikusteko Musika bildumara bisita
- 17:30: Mahai ingurua
- 19:00: PROIEKZIOAK. Euskal Herria, Asturias...

Azaroak 18, igandea:

- 11:00. Euskal herri soinu-tresnak kalez kale
- 12:30. Euskal herri soinu-tresnak kontzertua
- 14:30. Bazkaria
- 16:30. Soinuenean. Laguntzaileei omenaldia
Herri Musika Festa



Pasa den ekainaren 10ean izan zen ikasturte bukaerako kontzertua Oartzungo plazan. HMT

Maiatzaren 24an 25. *Txalaparta Festa* DVDaren aurkezpena eta proiektzioa izan genuen. Maiatzak 25ean Adabegi taldeak txalaparta, bestelako perkusio tresnak, dantza eta flamenkoa uztailean dituen emanaldia eskaini zuen. Gero Atxur pub-tabernan *Txalaparta party* aparta saioan elkartu ziren txalaparta zale gazteak.

Maiatzak 26an goizeko 10:00etan Hernani Musika Eskolan Ttakun 2.1 programa informatikoaren erabilerari buruzko tailerra izan zen eta ondoren *Txalaparta Festa* hasi zen txalaparta saio libreekin, Hernani Musika Eskolako Alboka, Dultzaina, Trikitixa eta Txistu taldeen musikarekin. Eguerdian Herri Bazkaria izan zen.

Bukatzeko 17:00etan Hernaniko Bertso Eskolako Bertsoariak hasiera eman zioten *Txalaparta Jaialdi Nagusiari*. Ondoren Txalapartarien txanda iritsi zen: Zuaznabartarrak, Goikoetxeatarak, Nafarroako *hutsun* taldea, Irungo Txalapartariak, Sestaoko Txalapartariak, Ziburuko Txalapartariak, Zigoitiako *Kinke* taldea eta Hernani Txalaparta Eskolako txalapartariak.

Ikusten dugunez Txalaparta Festak bizi bizirik jarraitzen du bere bide emankorretik.

BISITARI KOPURUA

Azken hiru hilabeteetan: bisitari kopurua: 1802

Antolatutako taldeak: 70

Bisitari kopurua ekaina arte: 33887

WEB ORRIRA BISITAK

Azken hiru hilabeteetan: 15001

SOINUENEA - HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax 0034 943 493 578

herrimusika@herrimusika.org

www.herrimusika.org

